

# Kartel-buru handien lehiatik at

Euskal Herria Zuzenean festibalak hogeigarren urteurrena du aurten, eta ospakizunarekin batera norabide berri bat iragarri dute: izen handiko musikarien norgehiagokatik aldendu eta talde berriak ezagutzeko aukera eskainiko diote publikoari. Uztailaren 3tik 5era bitarterako egitarau betea prest dute Lekornen, “20 urte, urtero sortzen” lelopean.

| ITZIAR UGARTE IRIZAR |

BALITEKE inork pentsatu izana EHZren kartela pobregoa dela aurten, azken urteetakoe-kin erkatuta. Horrela uler daiteke edo ez, baina talde entzutetsuen ausentzia espresuki hartutako erabakia da. Hogeigarren urteurrenaren karira, festibala birpentsatu eta proiektua berritzeko tartea hartu baitu antolakuntzak, haien oinarrietara eta baliabideetara hobeto egokitzeko.

“Proiektuari buelta eman eta aurrerapauso bat egin nahi izan dugu”, azaldu du Pauline Guelle EHZ elkarteko lehendakariak. Irailean festibaleko laguntzaileekin bildu zirenean jarri zuten mahai gainean proposamena: festibala eremuz txikitu eta aurrerantzean afixa-buru handirik ez ekartzea. Azken urteetan festibala nola handitu den ikusita, eta batez ere ekonomiko-ki haien baloreekin –“internazionalisa, antikapitalista, euskararen eta euskal kulturgintzaren aldekoa, bertako produktuekin konprometitu, justizia sozialaren aldekoa...”– gehiago bat ez zetorrela ikusita erabaki dituzte aipatu aldaketak. “Bilboko BBK Live edo Biarritzeko BIG Festivalen pareko festibaletatik ezberdindu nahi izan dugu, eta gure publikoari esan ez garela panorama komertzial horren lehian sartzen”.

EHZk beste eredu bat proposatzen duela dio, festibaleko laguntzaileen lanean oinarritzen dena eta sorkuntza artistikoaren sostengua, ikusgarritasuna eta sentsibilizazioa xede dituen.

## Proiektu berritua

Kontzertu eredu aldatu eta aurkikuntza musikalaren aldeko apustua egiteaz gain, festibalaren gunea txikitu eta eskaintza osoa

Lekorneko gazteluaren aitzinera eraman dute. “Ez da gehiago bereizketarik izanen kontzertu, konferentzia eta ikus-entzunezkoen artean”, azaldu du Guellek. Sorkuntza-diziplinen arteko mugak hautsi eta publikoa elkarrengandik hurbilago egotea lortu nahi dute horrela.

Egitaraua osatzerakoan aurten lehentasuna eman diete talde militanteei eta kalitatezko musika egiten dutenei. “Horregatik gure kartelean ez da izen ikaragarria duen talderik, baina kalitate handia dago”, adierazi du Guellek. Egitaraua musika kontzertuek mamitu arren, izango da besterik, eta kale-animazio, antzerki eta dantza saiorik ez da faltako.

Hausnarketa politiko eta kulturala sustatzen jarraitzeko, ondorengo gaien inguruko konferentziak prestatu dituzte: emakumeak eta sorkuntza, Kurdistango egoera, espetxearen eraginak norbanakotik kolektibora, Greziako aldaketa-aukerak bide instituzionalean eta Afrika eta Euskal Herriko deskolonizazio prozesuen mahai-inguru.

“Inongo nostalgiarik gabe, proiektu berri batekin ospatuko dugu 20. urteurrena”  
Pauline Guelle

## Hogei urtez

“Arrosako esku kolpez, Idauzeko esku hartzez, Heletako esku lanez, Lekorneko esku zartez, izan naiz 20 urtez”. Horrela jaso dute EHZren ibilbidea antolatzaileek urteurrena ospatzeko idatzi duten abestietako batean. Hasieratik Ipar Euskal Herriko barnealdeko herrietan egin da festibala, kostaldeko eskaintza zabalagoa orekatzeko asmotan; 1996an Arrosan jaio eta bertan zortzi urtez izan zen, hurrengo bost urtez Idauze-Mendin, lau urtez Heletan eta 2012tik Lekornen egiten dute.

Urte urte iparraldean festibal aitzindaria bilakatu dela argi dio elkarteko lehendakariak. Arrakastaren gakoak urteetan zehar lan taldeen eta populuen arteko zubi lanean eta bereziki, baloreen inguruan beti mantendutako eztabaidan antzematen ditu Guellek. Haren hitzetan, “EHZ betidanik esperimentazio gune izan da, non gazteek gizarte ‘ideala’ esperimentatzen ahal duten”. Uneoro egoera sozialari eta ideia berriei adi egoteak eman die indarra festibalarekin aurrera egiteko.

### Kontzientziarioa erroan

Guellek uste du EHZk oinarrian dituen ideiak gizarteratzean eta kontzientziarioan ekarpen handia egin duela bi hamarkada hauetan, eta funtsean, hori dela festibalaren erroa. “Beti bete izan du alor anitzetako militanteen topaleku-funtzioa eta era berean, festibalean ikusitakoan sakontzeko eta Euskal Herriaren eraikuntzan lan egiteko bultzada gisa balio izan du”.

Bide guztia ez da leuna izan ordea, eta izan da festibala kinkan jarri duen oztoporik: “Hastapenetan abertzaleen arteko zatiketa izan zen, Heletan ekaitza izan genuen gero, ekonomikoki zailtasunak ukan ditugu, eta bestetik, antolakuntzako zenbait kide preso eramanak izan dira”.

### Festibalaz gaindi

EHZ elkartearen jarduna ez da festibaleko hiru egunetara mugatzen. Horren erakusgarri da EHrZ lehiaketa; kultura gutxitu edo hizkuntza minorizatuetakoko taldeei leku egiten dion topaketa. Iaz 15 naziotako 90 taldek eman zuten izena eta horietatik 11k jo zuten festibalean. Orain arte, bertako taldeak bul-



PIERRE BALACEY / EHZ

**Aurten festibalaren eskaintza osoa Lekorneko gazteluaren aitzinera eraman dute: “Ez da gehiago bereizketarik izanen kontzertu, konferentzia eta ikus-entzunezkoen artean”.**

tzatzea izan da EHrZen lehentasunetako bat, baina aurten, atzerriko musikariei ere dei egin diete.

Bestetik, urte guztian proiektuaren oinarriak zabaltzen jarraitzeko ekintzen artean, EHZinemaldia ere antolatu dute aurten Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako hainbat tokitan, film emanaldi eta eztabaidak uztartuta. Hogeigarren urteurrenaren harira, hainbat film labur egin berri dituzte eta irail-azaroa bitartean, Uztaritzetik hasita Gaztetxe tourra egin zuten. Bi hamarkada hauetako ibilbideak utzi dituenak artxiboan jasotzeko bi urteko lana ere izan dute esku artean.

Lekornen, Baionatik kilometro gutxira, izanen da zita uztailaren 3tik 5era. Norabide berriari engaiamenduz helduta, atzera barik, aurrera begira egingen dute festibalaren 20. edizioa: “Inongo nostalgiarik gabe, proiektu berri batekin ospatuko dugu urteurrena”. ■

**ellauri**  
HOTELA

**KILO TERDI TXOKOA**  
Kilo t'erdiko txuleta  
Legatz-solomoa plantxan  
(6 pertsona gutxienez, aurretik deituta)

Altzusta 38, 48144 ZEANURI  
+34 946 317 888 | ellauri.com

*Naturra sentituta*

**CAMPOS**

1921-ETIK, CAMPOS-EK  
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU  
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI  
ESKER, HEGALUZERIK ONENA BILATZEN  
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU  
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: [www.clubcampos.com](http://www.clubcampos.com)